

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4175

AGINDUA, 2015eko irailaren 25ekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015-2016 ikasturteari dagokion ikastetxeei buruzko informazioa eredu bateratuaren bidez bilatzeko dena.

Hezkuntza-plangintza eta kudeaketa arloetako beharrei erantzun ahal izateko eta estatistika ondorioetarako, unibertsitatez besteko irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan 2015-2016 ikasturteari buruz bateratutako informazioa bilduko da. Horretarako, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren eta Hezkuntza Sailburuordetzaren proposamenez, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoan beren egoitzak dituzten unibertsitatez besteko ikastetxe guztiek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aplikazioak erabiliz, Eskola Jarduera, Orduategiak, Espediente Akademikoa, Notak eta Faltak (azken aktak) eta HPB-Hezkuntza Premia Berezia izenpean antolatu diren galdera zerrendei edo dokumentuei erantzun beharko diete eta bete beharko dituzte, zehaztasunez eta egitasunez.

Bigarrena.— Ikasturtean zehar, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak zer galdeketa bete behar diren jakinaraziko dio ikastetxe bakoitzari, eta epeak eta prozedura egokiak adieraziko ditu.

Hirugarrena.— Ikastetxeko zuzendariak gainbegiratu beharko du ereduak nola bete diren, izan ere, horrek bermatzen baitu ematen den informazioaren egiazkotasuna. Dokumentuak bete ondoren, hala badagokio, ezarritako prozedurak eta epeak errespetatuz aurkeztu behar dira, eta ondoren, behar denean, berrikusteari ekingo zaio.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeari, Hezkuntzako sailburuordeari eta Hezkuntzako lurralde-ordezkariei baimena ematen zaie agindu honetan ezartzen dena garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek eragina izango du Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko irailaren 25a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.